

12

Gida didaktikoa

**GARIA NOLA
EZAGUTU GENUEN**

(Euskal Herria)

GARIA NOLA EZAGUTU GENUEN

(Euskal Herria)

Gida didaktikoaren azalpena

·Gai-zerrenda :	1.or.
·Helburuak	2.or.
·Edukiak	2.or.
·Ekintzak	3.or.
·Gidoi literarioa	7.or.

Bibliografia	14.or.
---------------------	--------

Egileak	15.or.
----------------	--------

HELBURUAK:

Ordena kronologikoari jarraituz fikziozko narrazioa zein errealtatean oinarritutakoa egitea, lekuzko eta denborazko konektoreak baliatuz eta aditz-denbora egoki erabiliz. Eskolako eguneroko bizitzako egoeretan parte hartzea, ahozko hizkuntza erabiliz. Gaitasun metalinguistikoa garatzea.

EDUKIAK:

Jarrerak:
Begirunea.
Zuzentasuna.
Ordena.

Prozedurak:

ULERTZEKO ETA EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

A. AHOZKO TESTUAK ULERTZEA eta EKOIZTEA:

- a. Narrazioa: kondaira
- b. Gelako eztabaidak / planifikazioa.

B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK ULERTZEA

- a. Azalpenezko testu historiko egokitua.

C. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEA:

- a. Narrazioa: kondaira.
- b. Azalpenezko testua: laburpena.
- c. Ordenari jarraituz kontatzea: adierazi gurpilaren aurkikundea kronologikoki, lekuzko eta denborazko konektoreak baliatuz eta aditz-denbora egoki erabiliz.

Kontzeptuak:

HITZAREN MORFOLOGIA: mikroegiturak

Deklinabideko markak: Nondik / nora

Zerez/Zerezkoa

Izena: Hitz konposatuak: -dun atzizkia.

Esapideak:

Iritziak ematekoak: nik uste dut, nire aburuz,

Erabateko ziurtasuna ez dugunean: uste denez, antza denez, -ren arabera,

Konexioko mekanismoak:

Lehenago, ondoren, denbora igaro ahala, denboran zehar, ... hasieran eta geroago ...

Esate baterako ..., besteak beste, honakoak,

2.3 ERABILTZEKO IRADOKIZUNAK.

NOIZ ETA NOLA ERABILI.

Ikusi baino lehen, komeni da zertaz den azaltzea, pertsonaien izenak esatea, etab. Behin baino gehiago ikustea ondo legoke, baina ez egun berean.

JARDUERAK:

ULERTZEKO ETA EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

·Ikusi baino lehen, eman izenburua, erakutsi karatula, eta bermatu hipotesiak egiten dituztela.

A. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK ULERTZEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

·Ikusi eta entzun kondaira osoa. Ulertu eta kritikatu: zer azaltzen den, beste azalpenen bat egon ote daitekeen...

B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

·Egin kondairaren sekuentzia: ahoz eta marrazkiz. Prestatu txotxongilo-saioa: banatu pertsonaiak, diseinatu, egin dekoratuak, ahalegindu sortzen diren eztabaidak eta desadostasunak hitz eginez konpontzen.

Planifikazioa:

Lanen eta erantzukizunen banaketa

Lanen koordinazioa

Lanaren kontrola:

Saiakerak aztertea: behaketak apuntatzea /iradokizunak eta iritziak ematea.

Iradokizunak onartzeko bozketetan parte hartzea.

Lanaren balorazioa.

·Asmatu taldeka gizakien aurkikuntzaren bati buruzko kondaira bat: "Metala nola ezagutu genuen". "Gurpila nola ezagutu genuen". "Zeramika nola ezagutu genuen". "Antibiotikoak nola ezagutu genituen".

"Gurpila nola ezagutu genuen" (Informazioa).

Lehen gurpila Mesopotamian asmatu zuten, baina ez dakigu nork. Arkeologoen ustez, buztinlariak erabiltzen duten tornua bezalakoxea zen. Ondoren, garraiorako erabili zuten. Imajina ezazu gurpilak nola lagunduko zien gizaki haiei elikagaiak, ontziak eta abar garraiatzeko.

Lehen gurpilak zurezkoak zirenez gero, usteldu egin ziren, eta horregatik ez zaigu aztarnarik heldu.

Nola dakigu hori? Tornuan egindako buztinezko objektuak Mesopotamian aurkitu zituztelako. Objektu horiek, gutxi gorabehera, K. a. 3.500 urtekoak dira. Halaber, buztinezko oholtxo batean. gurdi gurpildun bat ageri da marraztua. Ordu arte, tornuan egindako ontziak eta gurpil marraztua aurkitu ziren, baina gurpilaren froga fidagarriena Mesopotamian aurkitu zen, K.a. 3000-2000 urtekoa: lehen gurpilaren arrastoak, hain zuzen ere. Zurezko xaflek osatzen zuten gurpila eta, uste denez, ardatz baten inguruan biratzen zuten.

Mesopotamiatik inguruko herrietara zabaldu zen, gaurko Turkiara eta Siriara.

Ameriketara ere gurpila ezaguna zen, baina jostailu moduan, ez garraiatzeko tresna bezala. Nola dakigu hori? Bada, Mexikon, zeramikazko lanen marrazkietan, animaliak gurpilen gainean jolasean agertzen dira. Europarren inbasioak eraman zuen gurpila Ameriketara. Arestian esan dugunez, gurpilak zurezkoak ziren hasieran. Burdina asmatu zenean, gurpilen haga sendoagoak egiten hasi ziren.

Gurpilen diseinua ere aldatuz joan zen. Egiptoarrek lau erradioko gurpila asmatu zuten, eta erromatarrek zortzikoa. Gurpil erradioduna arinagoa da eta, konturatu bazarete, gaur egun ere erradiodunak erabiltzen ditugu.

1870ean, aurrerapauso handi bat egin zen: bizikletetarako gurpil metalikoa egin zuten. Gurpilaren erabilera anitz egin dira; besteak beste, honako hauek aipatuko ditugu:

Ardatz baten inguruan biratu zuen lehen pieza zirkularra buztinlariaren tornua izan zela esan berri dugu. Ondoren, zamak batetik bestera eramateko garraio-mota berriak sortu ziren gurpilei esker. Lehendabizi, gurdiei ezarri zizkieten gurpilak. Gurditik hasi eta denboran zehar, bizikletek, motoek, automobilek zein treneko bagoiek era bateko edo besteko gurpilak erabili dituzte. Hala ere, garraioak eta buztinlariak ez dira gurpilaren aurkikuntzaz baliatu diren bakarrak izan. Esate baterako, artilea iruteko gorua gurpila da azken batean. Gari-aleak edo arto-aleak ehotzeko errotan, animaliez edo esklaboek baliatzen ziren hasieran, baina laster ikasi zuen gizakiak uraz eta haizeaz baliatzen. Haize-errotak eraiki zituzten hasieran, eta, geroago, ur-errotak edo gurpil hidraulikoak. Alea errotetan gurpil artean ehotzen zen. Denbora igaro ahala, gurpil hidraulikoa ehotzeko ez ezik, ehuna jotzeko, zerra mekanikoei eragiteko eta beste zeregin askotarako ere erabili zen.

Ura ibaietatik eta erreketatik ateratzeko, berriz, noria erabiltzen zen. Horiek ere gurpil handiak dira. Erloju mekanikoetan ere gurpil horzdunak ditugu.

C. ULERTZEKO ETA EKOIZTEKO PROZEDURAK

·Prestatu kondairari buruzko hitzaldia: azaldu "garia nola ezagutu genuen" ZIENTZIAREN ARABERA. Jaso informazioa, aukeratu, ordenatu, idatzi edo marraztu, ikasi eta azaldu ahoz.

·Utzi kondairaren gainean egindako lana gelako liburutegitxoan egun batzuez.

D. HAUSNARKETA METALINGUISTIKOA.

Bete testu honetan dauden hutsuneak honako hauekin edo zuk proposatutakoekin:

"Gurpila nola ezagutu genuen".

Lehen gurpila Mesopotamian asmatu zuten, baina ez dakigu nork. Arkeologoen..., buztinlariak erabiltzen duten tornua bezalakoxea zen... garraiorako erabili zuten. Imajina ezazu gurpilak nola lagunduko zien gizaki haiei elikagaiak, ontziak eta abar garraiatzeko.

Lehen gurpilak zurezkoak zirenez gero, usteldu egin ziren, eta horregatik ez zaigu aztarnarik heldu.

Nola dakigu hori? Tornuan egindako buztinezko objektuak Mesopotamian aurkitu zituztelako, ..., gutxi gorabehera K. a. 3500 urtekoak dira. Halaber, buztinezko oholtxo batean, gurdi... bat ageri da marraztua. Ordu arte, tornuan egindako ontziak eta gurpil marraztua aurkitu ziren, baina gurpilaren froga fidagarriena Mesopotamian aurkitu zen, K.a. 3000-2000 urtekoa: lehen gurpilaren arrastoak, hain zuzen ere. Zurezko xaflek osatzen zuten gurpila eta ..., ardatz baten inguruan biratzen zuen.

Mesopotamiatik inguruko herrietara zabaldu zen, gaurko Turkiara eta Siriara.

Ameriketara ere gurpila ezaguna zen, baina jostailu moduan, ez garraiatzeko tresna bezala. Nola dakigu hori? Bada, Mexikon, zeramikazko lanen marrazkietan, animaliak gurpilen gainean jolasean agertzen dira. Europarren inbasioak eraman zuen gurpila Ameriketara.

Arestian esan dugunez, gurpilak zurezkoak ziren hasieran. Burdina asmatu zenean, gurpilen haga sendoagoak egiten hasi ziren.

Gurpilen diseinua ere aldatuz joan zen. Egiptoarrek lau erradioko gurpila asmatu zuten, eta erromatarrek zortzikoa. Gurpil erradioduna arinagoa da eta, konturatu bazarete, gaur egun erradiodunak erabiltzen ditugu.

1870ean, aurrerapauso handi bat egin zen: bizikletetarako gurpil metalikoa egin zuten. Gurpilaren erabilera anitz egin dira; besteak beste, honako hauek aipatuko ditugu:

Ardatz baten inguruan biratu zuen lehen pieza zirkularra buztinlariaren tornua izan zela esan berri dugu. Ondoren, zamak batetik bestera eramateko garraio-mota berriak sortu ziren gurpilei esker. Lehendabizi, gurdiei ezarri zizkieten gurpilak. Gurditik hasi eta denboran zehar, bizikletek, motoek, automobilek zein treneko bagoiek era bateko edo besteko gurpilak erabili dituzte. Hala ere, garraioak eta buztinlariak ez dira gurpilaren aurkikuntzaz baliatu diren bakarrak izan. Esate baterako, artilea iruteko gorua gurpila da azken batean. Gari-aleak edo arto-aleak ehotzeko errotan, animaliez edo esklaboez baliatzen ziren hasieran, baina laster ikasi zuen gizakiak uraz eta haizeaz baliatzen. Haize-errotak eraiki zituzten ... eta, geroago, ur-errotak edo gurpil hidraulikoak. Alea errotetan gurpil artean ehotzen zen. Denbora... , gurpil hidraulikoa ehotzeko... , ehuna jotzeko, zerra mekanikoei eragiteko eta beste zereginetarako ere erabili zen.

Ura ibaietatik eta erreketatik ateratzeko, berriz, noria erabiltzen zen. Horiek ere, gurpil galantak dira. Erloju mekanikoetan ere gurpil ... ditugu.

Kontatu goiko testua ahoz, duela minutu bat gertatu izan balitz bezala.

Kontatu goiko testua ahoz, une honetan gertatzen ariko balitz bezala.

Kontatu goiko testua ahoz, asmatua izango bazenu bezala.

2.4. GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

- § Karatula (minutu bat)
- § Narratzailea (2/4 minutu)
- § Kondaira (12/16 minutu)
- § Kredituak (minutu bat)

Gidoi literarioa:

Garia nola ezagutu genuen

(Euskal Herria.)

IZENBURUA: Munduko kondaira batzuk

IZENBURUA: Garia nola ezagutu genuen

LAMIA: (OFF) Garia ezagutzea abantaila handia zen, elikagai horrek ematen digu-eta gizakioi energia lanari edo hotzari aurre egin ahal izateko. Bada, garia ezagutzen ez zuen herriak fruituak bildu behar zituen eta negurako gorde. Ez zuten janari nahikoa lortzen eta umeak eta helduak ere goseak akabatzen bizi ziren.

(ALDI BEREKOA)

MARTIN TXIKI:(AD LIB)

EMAKUMEA: (AD LIB) Ez ezazu jan, negurako bildu behar dira eta.

MARTIN TXIKI: Baina, gose naiz, ama!

EMAKUMEA: Badakit, seme, baina negua luzea izango da eta janaria ondo banatu behar dugu.

MARTIN TXIKI: Jo, goseak nago!

EMAKUMEA: Tori ba, baina ez eskatu gehiago.

LAMIA: (OFF) Hala bizi ziren Martin Txiki eta bere gurasoak.

LAMIA: (OFF) Neguan, hotzari aurre egiteko sua pizten zuten, baina gosea kentzea oso zaila zen.

EMAKUMEA: Aita, umea gose da.

GIZONA BAT: Asko falta da negua amaitzeko.

EMAKUMEA: Negu beltza, madarikatua! (AD LIB) / Hodei beltz eta ipar-haize gaizto horiek, zoazte hemendik. Udaberria etor dadila, landak eta basoak lorez jantzi ditzala. Erruki zaitezte gure umeekin! (NEGAR)

LAMIA: (OFF) Hurrengo goizean, Martin Txikik eta bere familiak berriro ekin zioten janaria biltzeko lan neketsu eta latzari. Basoan barrena abiatzen ziren fruituak eta sustraiak biltzera. Askotan, eta gurasoak konturatzen ez zirelakoan, gorde orde, topatzen zuena ahora eramaten zuen Martin Txikik. Halako batean, beste leinu bateko haurrak ikusi zituen; ezin zuen begia gainetik kendu jaten, itxura gozoa zuen zerbait jaten ari baitziren. A ze inbidia!

HAURHORI: (AD LIB)

HAURBELTZ: (AD LIB)

MARTIN TXIKI: Oo! Mmm! Bai gozoa ematen duela!

GIZONA BAT: (AD LIB) Zatoz hona, ez zaitez urrundu.

MARTIN TXIKI: Ikusi duzu zer jaten ari diren? Gozoa ematen du!

GIZONA: Goazen hemendik, ahaztu hori.

MARTIN TXIKI: Zergatik ez daukagu guk janari hori?

GIZONA: Ahazteko esan dizut.

MARTIN TXIKI: Baina...

GIZONA: Tori, jan ezazu hau.

LAMIA: (OFF) Aitak tipula bat eman zion. / Gauean, aita eta ama zer egin pentsatzen ari ziren suaren inguruan.

EMAKUMEA: Garia eskatu behar genieke.

GIZONA: Alferrik izango da. Ez digute emango.

LAMIA: (OFF) Gosearen gosez umea esna zegoen, eta dena entzun zuen.

MARTIN TXIKI: Zer eskatu behar da?

EMAKUMEA: Zergatik ez zaude ohean?

MARTIN TXIKI: Ezin dut, goseak nago.

LAMIA: (OFF) Gurasoak larri zeuden haurrari elikagai nahikoa eman ezin ziotelako.

EMAKUMEA: Hegoaldeko herriak badu garia. Badakite nola egin. Guk ez bezala, badakite janaria ekoizten.

HAURRA: Irakasteko esango diegu, e?

GIZONA: Ja, horren erraza balitz!

LAMIA: (OFF) Hurrengo egunean, eguna argitu baino lehen familia osoa joan zen hegoaldeko herriak garia nola biltzen zuen ikustera.

HAURREN AITA: Hartu hauek ere. Eta pilatu besteekin. Ongi?

HAURREN AMA: Bai. Ekarri.

LAMIA: (OFF) Haiek ere goizean goizetik jalgita zeuden. Familia osoa ari zen garia biltzen.

HAURREN AITA: Sartu itzazu hauek ere zorro horretan, badago lekua eta.

HAURREN AMA: Bai. (AD LIB)

MARTIN TXIKI: Nola ezagutu zuten garia?

EMAKUMEA: Ideiarik ere ez. Nik uste dut haien lurretan berez jaiotzen dela.

GIZONA: Tira, zoaz ohera!

MARTIN TXIKI: Eta zergatik ez digute irakatsi nahi?

EMAKUMEA: Gu baino indartsuagoak izateko.

MARTIN TXIKI: Eskatu diezue?

EMAKUMEA: Egin dugu bai, baina alferrik.

MARTIN TXIKI: Nik lortuko dut, nola edo hala!

EMAKUMEA: Ez zaitetz saltsatan sartu, e?

MARTIN TXIKI: Ez, ama. Pentsatuko dut nola egin, lasai.

EMAKUMEA: Ondo da; zerbait bururatzen bazaizu, esaidazu! (BARRE)

MARTIN TXIKI: Ez barrerik egin. Nik lortuko dut, bai alajaina! Ikusiko duzue!

EMAKUMEA: (AD LIB) Benetan adoretua da ume hau! Oraindik ez daki zein gogorra den bizitza!

GIZONA: Ez ditu-eta oztopoak ikusten! Adin gutxi oraindik!

LAMIA: (OFF) (sei hamasei) Martin txiki oso egoskorra zen, eta garia lortu nahi zuen nola edo hala. Hartara, gurasoei ezer esan gabe hegoaldeko herrira joan zen. Garia bildua zuten, asko gainera. Eta gari aleak bereizten ari ziren, Martin Txikik bere ezkutalekutik ikusi ahal zuenez. Baina familia hartako bi umeek Martin zelatan zegoela ikusi zuten, eta adarra jotzea otu zitzaien.

HAURHORI: Begira, han dago! (AD LIB)

HAURBELTZ: Bai, basoko umea da.

HAURHORI: Belar artean ostenduta dago.

HAURBELTZ: Badakit zer egingo dugun: isil-isilik hurbilduko gara eta adarra joko diogu.

HAURHORI: Tira, goazen ba.

MARTIN TXIKI: (AD LIB)

HAURHORI: Ssssh!

HAURBELTZ: Buh!

MARTIN TXIKI: (AD LIB)

HAURHORI: (BARRE)

HAURBELTZ: (BARRE)

MARTIN TXIKI: Aizue! Ken itzazue eskuak gainetik! Utz nazazue, askatu!
 Ez ni ukitu gero!
 HAURBELTZ: Kontxo! A ze txirula polita!
 HAURHORI: (OFF) (BARRE)
 MARTIN TXIKI:(AD LIB)
 HAURBELTZ:(AD LIB)
 MARTIN TXIKI: Ez kendu, nirea da! Lapur hori!
 HAURHORI: (OFF) (ON) (BARRE)
 HAURBELTZ:(AD LIB)
 MARTIN TXIKI: Kendu zure aho zikina hortik! Emaidazu!
 HAURHORI: (BARRE)
 MARTIN TXIKI: E, mutur-zikina! Emaidazu poltsa!
 LAMIA: ((OFF) Martin Txiki haserre bizian zegoen: bi umemoko haiek ez zizkioten ba txirula eta poltsa kendu?!
 HAURHORI: (BARRE)
 HAURBELTZ: (BARRE)
 LAMIA: (OFF) (zazpi berrogeita bederatzian) Martinek harrika egiten zien eta hitz potoloak esaten zizkien. Bi haurrak gurasoengana joan ziren babestera.
 HAURHORI: (BARRE)
 HAURBELTZ: (BARRE)
 HAURREN AITA: E? Baina zertan dabilta gure ume hauek?
 HAURREN AMA: Olgetan ibiliko dira.
 HAURREN AITA: Baina... poltsa hori? Nondik atera dute?
 HAURREN AMA: Eta txirula ere ekarri dute! Ai ene!
 HAURREN AITA: Bihurriak halakoak!
 MARTIN TXIKI: Lapur madarikatuak, ergelak! Txerri zikinak! Itzulizkidazue! Nireak dira!
 Muturra hautsiko dizuet!
 HAURREN AMA: O! Ai ene!
 HAURREN AITA: Baina ze...
 LAMIA: (OFF) Haurren gurasoak harrituta geratu ziren. Zergatik zegoen hain haserre ume ezezagun hura? Nondik zetorren? Eta zer nahi zuen? Euren semeei begiratzen zieten, baina ez zuten erantzunik jasotzen.
 MARTIN TXIKI: Emadazue poltsa, eta txirula!
 HAURREN AMA: Zer esaten du ume honek? Zer kendu diozue?
 HAURBELTZ: Ba...
 HAURHORI: Ezer ez!
 HAURREN AMA: Orduan, zergatik dator zuen atzetik?
 HAURBELTZ: Jo egin nahi gaitu. Harrika hasi zaigu!
 MARTIN TXIKI: Gezurra, hauek hasi dira. Txirula eta poltsa kendu dizkidate!
 HAURHORI: Ez da egia! Zelatan ari zitzaigun eta harrika hasi zaigu!
 HAURBELTZ: Ez da egia! Zelatan ari zitzaigun eta harrika hasi zaigu!
 MARTIN TXIKI: Ez! Gezurti halakoak! Orain ikusiko duzue! (AD LIB)
 HAURREN AMA: Et, et, et! Itxaron!
 HAURREN AITA: Geldi, mutiko! Lasai!
 HAURHORI: (BARRE)
 HAURBELTZ: (BARRE)
 LAMIA: (OFF) Eskerrak amak Martini sinetsi zion; bestela, ezer gabe geratuko zen.
 HAURREN AMA: Tira, eta non da poltsa?

MARTIN TXIKI: Hor!

HAURREN AMA: Ba, emaiozue behingoz.

HAURHORI: Jo... (AD LIB)

MARTIN TXIKI: Eta nire txirula, zer?

HAURREN AMA: Non da?

MARTIN TXIKI: Horrek hartu dit.

HAURREN AITA: (AD LIB)

HAURREN AMA: Egia da?

HAURBELTZ: Mmmm! Tori.

HAURREN AITA: (AD LIB)

MARTIN TXIKI: (AD LIB)

HAURREN AMA: Agur, laster arte!

HAURREN AITA: Agur!

MARTIN TXIKI: Laster arte? (OFF) Itzuli naiteke, ala?

HAURREN AMA: Bai, itzuliko zara jolastera, ezta?

MARTIN TXIKI: Bai!

HAURHORI: (AD LIB)

HAURBELTZ: Ez dago burutik sano!

HAURREN AITA: Ai, ume hauek!

LAMIA: (OFF) Haurren ama oso bihotz onekoa zen, eta ogi zati baten bila joan zen.

HAURREN AMA: Tori!

MARTIN TXIKI: Eskerrik asko. Agur!

HAURHORI: Agur! Agur!...

HAURBELTZ: Agur!...

HAURREN AMA: Agur! Itzuli nahi duzunean!

HAURREN AITA: Laster arte! Agur!

HAURHORI: (AD LIB)

HAURBELTZ: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Eta halaxe egin ziren lagun hegoaldeko herritarrek eta Martin Txikik. Martin oso pozik zihoan, a ze sorpresa erakutsi behar zien gurasoei!

MARTIN TXIKI: Ama, ama! Begira zer dudan!

LAMIA: (OFF) Gauean familiak ogia jan zuen suaren inguruan elkartuta. Gozo-gozo zegoen. Eta aspalditxoan ez bezala, sabela ondo betetzeko aukera izan zuten.

MARTIN TXIKI: Hau da esaten zenidana, ama?

EMAKUMEA: Bai. (AD LIB)

GIZONA BAT: (AD LIB)

MARTIN TXIKI: Gozo dagoela?

EMAKUMEA: Bai, baina nondik atera duzu? Non ibili zara, Martin?

MARTIN TXIKI: Eee... besteen herrian izan naiz.

EMAKUMEA: Besteen herrian? Hegoaldeko herrian? Jesus! (AD LIB) Nolatan hori?

MARTIN TXIKI: Hango ume bik poltsa eta txirula kendu dizkidate, eta jarraitu egin diet euren etxeraino.

EMAKUMEA: Ez zaizula berriro bururatu horrelakorik egitea, ez dira eta gure adiskideak! Aditu?

MARTIN TXIKI: Haien amak eman dit; ez zirudien gaiztoa.

EMAKUMEA: Ez zaitez hurbildu ere egin, entzun didazu?

MARTIN TXIKI: Gonbidatu egin naute, ama!

EMAKUMEA: Ixo! Hau azken hitza da!

MARTIN TXIKI: Ba, aukera ezin hobeia dut.

EMAKUMEA: Nahikoa entzun dut, Martin. Zoaz lotara. Tira, segi!

LAMIA: (OFF) Umea ohera joan zen txintxo-txintxo. Eta gurasoak bakarrik geratu zirenean...

GIZONA: Auskalo zer bururatu zaion. Harrigarria da gure Martintxo!

EMAKUMEA: Bai, ume galanta!

LAMIA: (OFF) Martin Txikik bereari eusten zion. Hain zen egoskorra, gurasoek amore eman baitzuten.

MARTIN TXIKI: Ez zait ezer gertatu. Behintzat, badakigu ez nautela jango, zer jan badute eta; ja, ja, ja!

EMAKUMEA: Zu baino egoskorragorik ez dago, e? Zoaz, baina, arazorik txikiena sumatu orduko, jo txirula, eta zure bila joango gara.

LAMIA: (OFF) Besteen herrira heldu zenean, jaiak ospatzen ari ziren alai eta umore onez. Gainera Martin hain atsegina zenez, ez zioten susmo txarrik hartu.

HAURHORI: (AD LIB)

HAURBELTZ: (AD LIB)

HAURREN AITA: (AD LIB)

HAURREN AMA: (AD LIB)

HAURREN AITA: Nor dugu hemen, e? Jaietara etorri zara? Zatoz, lehiaketak hastera doaz eta.

MARTIN TXIKI: Nolakoak? Parte har dezaket?

HAURREN AITA: Bai. Zer dakizu egiten?

MARTIN TXIKI: Oso indartsua naiz! (AD LIB)

HAURHORI: (BARRE)

HAURBELTZ: (BARRE)

HAURREN AITA: Adi guztiok, mutiko honek sekulako indarra dauka! Ea, ikus dezagun!

HAURHORI: (AD LIB) (BARRE)

HAURBELTZ: (AD LIB) (BARRE)

MARTIN TXIKI: Harria hauts bihurtuko dut. Ezetz zuk egin! (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Poltsatik gazta zati bat atera zuen eta txiki-txiki egin zuen hauts bihurtuz. Ja! Tranpati samarra zen gure Martin, ezta?

HAURREN AITA: (BARRE) Bai mukizu ausarta, ikusi duzue? (BARRE) Ezin naiz horretan zurekin norgehiagoka aritu, baina, beharbada, beste zerbaitetan? Zer gehiago dakizu egiten?

MARTIN TXIKI: Ba... Harriak oso urruti jaurtitzen ditut.

HAURREN AITA: Bai? Ni izango naiz lehena.

MARTIN TXIKI: Ongi.

HAURHORI: (AD LIB) (BARRE)

HAURBELTZ: (AD LIB) (BARRE)

HAURREN AMA: Aupa zu, aita! (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Ausarta zen gero! Nolatan bururatu ahal zaio ume bati gizon batekin lehian aritzea? Jakina, beste guzti-guztiak gizonaren alde zeuden!

HAURREN AITA: Zure txanda da.

HAURHORI: (BARRE)

HAURBELTZ: (BARRE)

HAURREN AMA: Bai! Hori duk eta! Oso ondo, aita!

LAMIA: (OFF) Oso urrun jaurti zuen harria.

HAURHORI: (AD LIB)

HAURBELTZ: (AD LIB)

HAURREN AMA: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Eskua poltsan sartu eta harri bat atera zuen. Hain indartsu jaurti zuen, harriak zerua zeharkatu zuen bistatik galdu arte.

HAURHORI: (AD LIB)

HAURBELTZ: (AD LIB)

HAURREN AMA: Ene bada! (AD LIB)

HAURREN AITA: (AD LIB) Ai, ai, ai! Halakorik ere! Umeak irabazi dit!

LAMIA: (OFF) Zer jaurti zuen, ba? Harria? Batzuek diote txoria jaurti zuela.

HAURREN AITA: (BARRE) Hau are hobea izan da. Tira, giroa berotzen ari da. Zer gehiago dakizu egiten?

MARTIN TXIKI: Ba, jauzi handiak. Ezetz irabazi!

HAURREN AITA: Irrikaz nago ikusteko.

HAURHORI: (AD LIB)

HAURBELTZ: (AD LIB)

MARTIN TXIKI: Meta horien gainetik igaroko naiz.

HAURREN AITA: Nahi duzun bezala, has gaitezen.

MARTIN TXIKI: Baina, abarka hauek jantzi behar ditut.

HAURREN AITA: Nigatik, nahi duzuna jantz dezakezu. Abarkak horiek jantzita ere, neuk irabaziko dizut eta.

MARTIN TXIKI: (AD LIB)

HAURHORI: (AD LIB) (BARRE)

HAURBELTZ: (AD LIB) (BARRE)

HAURREN AITA: (AD LIB) (BARRE)

HAURREN AMA: (AD LIB) (BARRE)

MARTIN TXIKI: (AD LIB)

HAURHORI: (AD LIB) (BARRE)

HAURBELTZ: (AD LIB) (BARRE)

HAURREN AITA: (BARRE)

HAURREN AMA: (BARRE)

LAMIA: (OFF) Besteak barrez lehertzen hasi ziren, baina Martinek, bitartean, ahalik eta gari gehien sartu zuen abarketan eta ondo beteta zituenean, korrika abiatu zen bere herriraino. Besteak konturatu orduko, majo urrundu zen handik.

HAURREN AITA: (BARRE) Nola joan den! Lotsak eraginda ote?

HAURBELTZ: (BARRE)

HAURHORI: (BARRE) Garia astintzeko ere ez du astirik izan. Gariz beteta ez da ba joan?

LAMIA: (OFF) Orduan konturatu zen aita.

HAURREN AITA: Bai tontoak garela! Horixe bera nahi zuen, alajaina!

HAURREN AMA: Ederki jo digu adarra.

HAURREN AITA: Mutiko madarikatu hori! Harrapatu egingo dut, bai horixe!

HAURHORI: (AD LIB) Bai! Gu ere zurekin goaz!

HAURBELTZ: (AD LIB) Harrapa dezagun!

LAMIA: (OFF) Atzetik abiatu zitzaizkion, oso haserre eta mehatxu eginez.

HAURREN AMA: (AD LIB)

HAURREN AITA: (AD LIB) Lapur hori, geldi zaitez, lapur zikina!

HAURHORI: Harrapatzen bazaitut, harrapatu!

HAURBELTZ: Emaguzu garia, tranpati hori!

HAURREN AITA: Harrapatzen bazaitut, irakatsiko dizkizut, bai, amarru ederrak.

HAURREN AMA: Bizkorrarena jo nahi izan diguzu, baina larrutik ordainduko duzu!

LAMIA: (OFF) Buelta eman eta ohorezko besoa eskaini zien.

MARTIN TXIKI: (AD LIB) Hurrengoan, erneago ibili. Oraingoan, galtzaile atera zarete!
Eskerrik asko gariagatik!

HAURREN AITA: (AD LIB)

HAURHORI: (AD LIB)

HAURBELTZ: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Ezin izan zuten harrapatu, lotsatuta eta etsita herrira joan ziren. Martinen etxean, berriz, oso pozik zeuden gariari begira.

MARTIN TXIKI: (BARRE)

EMAKUMEA: (AD LIB)

GIZONA BAT: (AD LIB)

EMAKUMEA: Nola ausartu zara? Ene!

GIZONA: Ederretik libratu zara.

MARTIN TXIKI: Konturatu naiz zer egiten duten. Lurrean sartu behar da, loratu arte.
Fruitua ematen duenean, moztu egiten dute. Guk ere egingo dugu, ados?

EMAKUMEA: Jakina, jateko eta gordetzeko adina lortuko dugu.

LAMIA: (OFF) Aurrerantzean ez ziren inoiz gehiago gose izango. A ze poza!

GIZONA BAT: Honek opari bat merezi du. Tori, zuretzat egina nuen.

MARTIN TXIKI: (AD LIB)

GIZONA BAT: (AD LIB)

EMAKUMEA: Hona hemen gure Martin, gora Martin!

GIZONA BAT: Gora! (AD LIB)

EMAKUMEA: Aupa gure Martin!

MARTIN TXIKI: (BARRE)

EMAKUMEA: Gora!...

LAMIA: (OFF) Eta kondairaren arabera, honela heldu zen garia gure lurretara. Bueno kondairak ez dira erabat zehatzak. (ON) Agian, zuek badakizue hori ez dela egia. Baina erabateko gezurra ere ez da.

LAMIA: (OFF) Duela denbora asko, bi ibairen artean bizi zen herri batek gariaren fruitua biltzen zuen. Mesopotamian, basagarria sortzen zen, eta gizakiek bildu egiten zuten. (ON) Deskuiduren batean, pilatutako aleren bat lurrean ernamuindu zen, eta gari-landareak sortu zituen. Gizakiek garia berriro sortzen ikasi zuten. Landu ahala, garia eraldatu egin zen, eta bizkorragoa eta emankorragoa bilakatu zen. Mesopotamiako herriek beste batzuk zapaldu zituzten, eta, zapalkuntzarekin batera, beren ohiturak ezarri zituzten.

LAMIA: Mesopotamiako herriek nagusitasuna galdu zutenean, garaile berriek zabaldu egin zuten gariaren laborantza. Horrela, egiptoarregana eta turkoengana zabaldu zen. Egiptotik eta Turkiatik Greziara, Greziatik Erromara, eta Erromatik gure penintsulako hegoaldera.

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARA ARDURADUNA:**
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**
Mikel Val

SOINU BANDA:
Inhar Val

EDIZIOA:
Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGILOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodriguez

K2000 S.A.

PRODUKTORE EXEKUTIBOA:
Tomas Ugalde

EUSKARA ARDURADUNA:
Josu Varela

BIKOIZKETA ZUZENDARIA:
Alvaro Sánchez

SARRERAKO KANTA:
Ana Tere Bengoetxea

AHOTSAK:
Monika Erdozia
J. L. Irigoien
Pedro Arrieta
Ana T. Bengoetxea
Ramón F. De Castro
Kepa Kueto
Jon Goirizelaia
Tere Jaio
Eduardo Gorriño

AUDIO TEKNIKARIAK:
Ricardo Goti
Antonio González
Javier Artetxe

NAHASKETAK:
Gorka Lara
Juan C. Cantera

PRODUKZIO LAGUNTZAILEA:
Ana Urresti

KOORDINATZAILEA:
Jon Arce

EIMA 2000

**Ikas material honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-02-19**

LEGE-GORDAILUA: : SS-1035/04

**L.C. PRODUKTOREA
TNO: 945-230715**